

# B

BARREN



## Agur Kopa altxatzeko ametsari




# ZEZEN-BIDE



## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



### ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

### LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kredituxarekin ordaintzeko erraztasunak

# BIOK

dekorazioa

ORAIN MAHALAN!!!  
MAIATZAK 22 OSTIRALA

## INAUGURAZIOA

ZATOZ GURE ETXEKO  
BERRIKUNTZAK IKUSTERA!!

Upaiz zaharra, 14

Tel.: 943 74 15 52 / 606 43 11 20

[www.biokdekorazioa.com](http://www.biokdekorazioa.com)

[biokdekorazioa@euskalnet.net](mailto:biokdekorazioa@euskalnet.net)



## Ronde van Elgoibar

Aste honetan egingo da urteroko Elgoibarko itzulia. Egixa esan, behin bakarrik osatu dot ibilbide guztia. Jun zan urtian izan zan. Lagun taldian egin genduan bueltia, eta benetan ederra begittandu jatan.

Afizionatu maillako txirindularitzia albo batera laga, eta kirol proba popular-konpetitibuetan jardun dot azken urtian. Eta fenomeno berezixa gertatzen da hauetan. Danok dakagu gustuko proba baten aurrez egindako markia hobetzia, eta horrek, azkenian, herri-probak konpetizio huts bihurtzen ditu.

Baiña lehiaketa gabeko kirola gero eta erakargarriagua begittantzen hasi jata. Apirillian, Flandrian egon nitzan Ronde van Vlaanderen edo Flandriako Tour zikloturistan parte hartzen. Iparraldeko txirindulari klasiko mitikuetako bat da, 260 kilometro luze. Profesionalen lasterketian aurreko egunian, klasika zikloturista burutzen da, hurrengo egunian osatuko deben ibilbide beretik. Haura bai dala zikloturismual 20.000 zikloturista bizikleta gaiñian (Quebrantahuesos-en 8.000 inguru urten gera), denborari begiratu ere egin gabe, izan ere, ez dago saillkapenik ezta denbora ofizialik ere. Ez dio ardura sei, zazpi edo hamabni orduan bukatzen dan. Gauzia bukatzia da.

Konpetizio amorruez, askotan pentsau izan dot zenbat denboratan egin leiken Elgoibarko itzulixa, baiña berotasun

hori hozten ahalegindu eta neure buruari galdetzen diot: Elgoibarko itzulixan helburua zein da? Neretzat bukatzia. Eta bidian zihar, Elgoibarko paraje ederrenekin eta jende artian sortzen dan giruaz gozatzia.

Aurten ere Plaza Haundixan egongo naiz seiretako k a n p a i e n soiñuakin batera, Karakaten gora gozatzen hasteko prest.

Iñigo Lariz



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Aurten ere Plaza Haundixan egongo naiz seiretarako, Karakaten gora gozatzen hasteko prest”**

**MENDI ITZULIKO ERRETRATUAK  
JARRIKO DITUGU **MEDIATEKAN**  
ASTELEHENEAN!**



**www.elgoiBARREN.net**

**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**

**ELGOIBARKO IZARRA**  
KULTUR ELKARTEA



# ANGEL IBARLUZEA

ZESTA-PUNTA JOKALARI OHIA

“Nire errautsak Euskadin egotea nahiko nuke, Elgoibarren”



*Angel Ibarluzea, tente, Euskadiko kamiseta soinean duela, lagun batzuekin ateratako argazkian.*

Orain dela hamarkada batzuk, orain dela ez asko, indar asko zuen zesta-puntak, eta Euskal Herriko jokalaria asko mundu osoko frontoietan aritzen ziren jokatzen. Debuta egitera kanpora joaten ziren, eta urteak ematen zituzten euren aberritik urrun. Jokatzeko garaiak amaituta, batzuk etxera bueltatu ziren, baina beste batzuk euren familia berriarekin geratu ziren, etxetik kanpo. Kasu horietako bat da Angel Ibarluzea *Arano*. Elgoibartarra izan arren, Filipinetan bizi da, Cebun, eta jatetxe bat dauka bertan.

## Elgoibartarra izan arren urte asko daramatzazu etxetik urruti.

1957 urtean Alacantera joan nintzen zesta puntan jokatzera. Debuta egiteko kanpora joan behar izaten genuen, eta Inazio Murua eta biok Alacantera joan ginen. Alacanteko frontoia itxi egin zuten eta herrira bueltatu behar izan nuen; Sigman egin nuen lan sasoi hartan. Baina 1959 urtean Palmara joan nintzen jokatzera. Soldadutza ere bertan egin nuen, gainera. Bukatu nuenean, Mexikora edo Italiara joateko kontratua neukan, eta opera gustatzen zaidanez, Italiara joan nintzen. Milanen egon nintzen zesta puntan jokatzeko, eta partidarik ez neukanean, opera entzuteko joaten nintzen.

## Indar handia zeukan zesta-puntak sasoi hartan...

Milanen 1890 urtetik Jai Alai frontoia zegoen. Egia esan, mundu osoan zeuden jai Alaiako frontoiak; Txinan bertan ere egon ziren pare bat. Milanen jokatzeko ari nintzela Tanpara joatea eskaini zidaten, baina sinatu baino bi egun lehenago hanka izorrratu nuen. Zortzi hilabete egon nintzen jokatu gabe, eta handik Zaragozara joan nintzen. Urtebete egin nuen han, eta berriro ere Mexikora eta Filipinetara joatea eskaini zidaten; eta nik Filipinak aukeratu nituen. Orduetik, bertan bizi naiz; 44 urte bakarrik.

**“Pilotari pila bat geunden Manilan, gehienok euskaldunak, baina, tartean, filipinarrak ere bai”**

## Manilara joan zinen lehendabizi.

Manila 1964. urtean ederra zen, ez zegoen arriskurik. Pilotari pila bat geunden, ia gehienok euskaldunak, baina tartean filipinarrak ere bai. Eta frontoia gauero betetzen zen. Bi urte eman nituen han, eta 1966 urtean Cebura etorri nintzen. Enpresak intendente lanetan jarri ninduen, eta jokatu ere egiten nuen. Eta epaile lanak ere egiten nituen gainera. Hiru gauzak

egiten nituen. Urteak eman nituen horrela, eta Manilan intendente egoteko deitu zidaten 1981ean, eta iraultza garaira arte egon nintzen bertan, hiru urte inguru. Orduetik Cebun bizi naiz.

## Orduan jatetxea zabaltzea erabaki zenuen.

Nire bizitzako bi pasioak pilota eta musika dira. Baina Manilako lana utzi nuenean, pilota betiko lagatzea erabaki nuen. Zaila da niretzat hemen lana topatzea, ingelesa ez baitut ondo hitz egiten, eta pilotari askok tabernak ireki izan dituzte. Nik neurea zabaltzea erabaki nuen orain hogeitun urte inguru. Beraz, pilota laga eta beste bi pasio ditut orain: musika eta taberna. *Antes era tenor, ahora tenedor.* Mundu guztiko jendea etortzen da tabernara.

## Bertara joaten direnek badakite taberna euskalduna dela, euskalduntzat dute?

Filipinar askok badakite nongoa naizen, eta Ameriketatik etortzen diren askok ere ezagutzen dute euskal arraza; ezagutzen ez duten bakarrik espainiarrak dira.

## Manilan eta Cebun bizi izan zara. Bietatik zein nahiago duzu?

Manilan bizi izan nintzen lehenengo aldian, oso ondo zegoen hiria, eta Cebu orain ez da orain dela 40 urte zena. Baina azken batean, Cebu askoz hobeto dago Manila baino. Manila arriskutsu dago orain: probintzietako jende mordo bat joaten da lanera, eta lanik ez dagoenez lapurretan egiten dute, eta hil. Hiri handi asko bezala, arriskutsua da. Manilara gutxitan joaten naiz, 6:00etan joaten naiz, eta ahal izanez gero 18:00etarako bueltatu nahi izaten dut: ez zait gustatzen gauzez Manilan egotea. Lagun asko ditut bertan, baina nahiago dut iluntzerako etxean egon.

## Filipinetan hiri batetik bestera ibiltzen zara, baina Elgoibarrera etorri zaren azken aldia noiz izan da?

Orain dela bost urte egon nintzen herrian; ama ikusi nuen azken aldia izan zen hura. Herrimin handia sentitzen dut: nire odolaren %75 bizkaitarra da, eta %25 bakarrik gipuzkoarra, baina herriaren falta sentitzen dut.

## Urteak dira etorri ez zarenetik, baina euskara gogoratzen duzu?

Ulertu guztia egiten dut, eta apur bat hitz

egiteko gai ere banaiz. Elgoibarrera joaten nintzenean, berriro ere euskara irtetzen zitzaidan amarekin berba egiterakoan.

## Herrira bueltatzeko asmorik bai?

Gauza bat argi daukat: bizitzeko Cebu gustatzen zait. Euskal Herria, oro har, asko aldatu da joan nintzenetik. Baina nire errautesak Euskadin egotea nahiko nuke, Elgoibarren. Urte mordo batean daukagu hilobia Elgoibarren eta nire senitartekoak bertan daude: nire errautesak ere bertan egotea nahiko nuke. Hala ere, badakit horra joaten naizenean hotza sentituko dudala: azken aldian egon nintzenean ere, pentsatuta nuena baino lehenago bueltatu nintzen Cebura, hotza zetorrelako. Eta abuztua zen.

**“Bero ikaragarria egiten du hemen: denboraldi batzuetan euria egiten du, baina beti egiten du beroa”**

## Urtean zehar zenbat gradu edukitzen dituzue Cebun?

Bero ikaragarria egiten du hemen: denboraldi batzuetan euria egiten du, baina beti egiten du beroa. Aire egokitua daukagu etxeetan, eta lo egiterakoan freskura sentitzea gustatzen zait.

## Krisiak eragin handia dauka hemen, Cebun ere bai?

Bai, altzariak egiten dira Cebun, eta ez direnez saltzen, lan gabe ari dira geratzen. Nik neuk momentuz ez dut eragin handirik igarri. Hala ere, gauza bat argi daukat: dirua garrantzitsua da, baina ez da guztia. Ondo bizi naiz hemen, baina Euskadin ezin izango nuke eduki hemen daukadan bizi maila. Askok pentsatzen dut Euskal Herrian, izan ere, bi aberri ditut-eta: Euskal Herria eta Filipinak. [Abesten amaitu du]. *Gu gara Euskadiko gazteri berria, bat bakarra da eta gure aberria. Gu gara Euskadiko gazteri berria, Euskadi bakarra da eta gure aberria.*



# 25 URTE MUSIKAZ GOZATZEN



*Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako lehen zuzendaritza batzordea.*

**Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak 25 urte betetzen ditu aurten, eta urteurrena ospatzeko, liburu bat kaleratuko du, besteak beste. Liburuak eskolaren nondik norakoak azaltzen ditu, eta bere historian gertatutakoak aipatu. Oraindik ez dute kaleratu, baina hona hemen musika eta dantza eskolaren historiaren zipiritin batzuk.**

**Edurne Burgaña**

**B**ereziartua. Musika munduan oso ezaguna izan zen Inazio Bereziartua. Beasainen jaio zen 1883an, eta 1902n etorri zen Elgoibarrera Parrokiako organista eta Musika Bandako zuzendari. Elgoibarren musika erein zuen, berak sortutako musika akademian. Lehen mailako konpositorea izan zen Bereziartua, eta 1958ko martxoaren 7an hil zen Elgoibarren; ordurako, musikaren hazia ereinda zegoen.

## **Hamahiru irakasle eta 300 ikasle**

Handik urte batzuetara, 1984ko irailean, 300 ikasleekin eta hamahiru irakasleekin hasi zuen ibilbidea Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak. Hasieran ez zen ofiziala, errekonozituta egon arren, eta Donostiako Kontsektorioari lotuta zegoen. Ondorioz, ofizialtasuna lortzeko

azterketak Donostian egin behar izaten ziren.

Ikasle kopuruak nabarmen egin zuen gora 1991. urtean – 610 ikasle egon ziren matrikulatuta– eta oinarrizko mailako ofizialtasuna eskatu eta eman zioten eskolari hurrengo urtean, 1992. urtean.

## **Oinarrizko mailako ofizialtasuna lortu zuen eskolak 1991 urtean**

Handik urtebetetera, LOGSE legea sartu zen indarrean, eta musika eskola bihur-

tu zen zentroa. Hala ere, ez zuen erdi mailako kontsektorio izaera galdu 2002. urtera arte.

Aurten 25 urte bete ditu aurten Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak. Haurrak, gazteak eta nagusiak musikarekin harremanetan jartzen dituen gunea da. Helburua musika eta herri-dantza inguruko formazio praktikoa ematea da.

Aurtengo ikasturtean 510 ikasle daude matrikulatuta. 25 irakaslek lan egiten dute ikasleak musika eta dantza munduan bideratzeko.

## **Mailaz maila**

Musika eskola hiru mailatan egituratuta dago. Lehenengo mailan edo lehen harremaneko mailan, norbere gorputza lehenengo instrumentu gisa ezagutu eta



baloratzeko aukerak ematen dituzte. Gainera, norberaren aukerak aztertzen dituzte. Horretarako, psikomotrizitatea garatzea garrantzitsua da, eta oreka eta arnasketa kontrolatzea. Azken batean, haurren adierazpen artistikoa eta ahoskoa garatzeko balio du, eta haurra musika kulturari janzteko. 5 urteko umeei musika tailerrean parte hartzen dute. 6 urtekoek, berriz, musika eta mugimendu tailerra dute.

Bigarren mailan edo hasierakoan, instrumentuekin hasten dira. Musika ikasketen ardatz nagusi bihurtzen da. Lortu beharreko gaitasuna instrumentu bakoitzari dagokion taldeetan parte hartzeko adina-koa izango da.

Hirugarren maila edo sendotzeko instrumentua jotzen sakondu nahi duten

ikasleentzako da, edota taldean sakondu nahi dutentzat.

### Ikasitakoa erakusten

Musikariek bakarka zein taldeetan banatuta jotzen dute. Honako talde hauek daude: gazteen banda, akordeoi taldea, hari taldea, rock taldea, korua, trikiti taldea eta pandero taldea.

Bestalde, eskolan ikasitakoa praktikan jartzeko lehiaketak ere antolatzen ditu Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak: Elgoibarko Herria instrumentu taldean lehiaketa eta Soinu Zahar eta Aurresku Txapelketa, esaterako.

Gainera, ikasitakoa jendaurrera eramateko hainbat topaketa ere antolatu izan dituzte: Musikaldia 2005 eta Akordeoi Topaketa 2008, besteak beste.

## IKASLE KOPURUA

### Instrumentuka

- **Akordeoia:** 25 ikasle
- **Biolina:** 33 ikasle
- **Biolontxeloa:** 11 ikasle
- **Bonbardino:** 1 ikasle bat
- **Flauta:** 26 ikasle
- **Gitarra:** 49 ikasle
- **Klarineta:** 22 ikasle
- **Oboea:** 4 ikasle
- **Panderoa:** 15 ikasle
- **Perkusioa:** 20 ikasle
- **Pianoa:** 82 ikasle
- **Saxofoia:** 28 ikasle
- **Trikitixa:** 31 ikasle
- **Tronboia:** 13 ikasle
- **Tronpa:** 4 ikasle
- **Tronpeta:** 15 ikasle
- **Txistua:** 11 ikasle

### Dantza

- **Guztira:** 208 ikasle

### Kantua

- **Guztira:** 80 ikasle

### Gazteen banda

- **Guztira:** 35 ikasle



## ELKARTE GUZTIEN FUNDAZIOA

Elgoibarren musika kultura eta herri-dantza bultzatu nahian eta, bereziki, Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolari eusteko, Elgoibarko Udal Musika Fundazioa sortu zuten 1990. urtean.

Lege aldaketen ondorioz, 2004 urteko abenduan fundazioa bertan behera geratu zen. 2005eko urtarrilean, baina, beste federazio bat sortu zuten: Elgoibarko Musika eta Dantza Federakuntza (EMUDAFE). Elkarte guztiak batzen dituen federazioa da.

Irabazi asmorik gabeko fundazioa da, eta Elgoibarko Udalaren menpe dago. EMUDAFEn ondorengo taldeek hartzen dute parte: Udal Txistulari Bandak, Udal Musika Bandak, Elgoibarko dultzaineroak, Haritz dantza taldeak, Parrokiako abesbatzak eta Inazio Bereziartua Musika Eskolak.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Azken agurra

Kaixo, bezero eta lagunok: bizitzan denak du hasiera eta amaiera, eta badi-rudi guri ere iritsi zaigula. Haize bolar da bat bezalakoa izan den erabakiak Bilbao Express bidaiak agentziak itxiko du-eta. Dagoeneko, horren guztiaren berri izan arren, guk hirurok urte haue-tan (1997-2009) gudan jarritako kon-fiantza eskertu nahi dizuegu, eta, au-rrerantzean, haize goxoa lagun dugula, elkar ikusiko dugulakoan...

Mila esker, guztiagatik.

Pilar, Alicia eta Maitane ☺

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

## OHARRA

Elgoibarko Izarra elkarteko langileen batzarrak maiatzaren 21eko greba deialdiarekin bat egin duenez, BARREneko lan-taldeak egun bat lehenago bidali beharko du lana inprimategira datorren astean. Beraz, martitzen eguerdirako bidali beharko dira erredakziora gutunak, Merkatu Txikia ataleko iragarkiak, eta zorion agurrak.

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 · 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 Faxa: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:







Ibai  
Portu

Hau nire  
BARREneko  
2009ko az-  
ken zuta-  
bea izango  
da. Bi urte  
izan dira, zure  
erantzun eta gai-  
jartzeekin buruari  
eragiten. Sarri goza-  
tzen ere bai, zure zutabe-  
ak irakurri ondoren zer ikasia ba-


neukala konturatu ondoren. Azken lerrokadak, bukatzeko, ama-  
naturaren eta gizakiaren arteko erlazioari eskaini nahi dizkiot.

Gizakia adimena garatzen ikasi duen animalia bakarra omen da. Be-  
rari esker, mendeetan zehar eraikuntza eta aurkikuntzarik txundigarrienak  
egin ditu, eta baita maitasun istoriorik hungigarrienak sortu ere. Baina his-  
toriaiko basakeriarik anker eta gaiztoenak ere gizakiak burutu ditu. Gizakia  
animalia gaiztoa baita, askotan.

## “Nire azken hitzak zuretzat, eta nire lekua hartuko duenarentzat”

Ez dut ezagutzen ondokoari min emateaz gozatera irits daitekeen  
animaliarik. Adimenak eman ote digu gizakioi gaitasun anker hori? Natu-  
ran ez dago horrelakorik; min ematen denean, norberaren burua etsaiaren  
atzamarretatik defenditzeko, taldeko biziraupena bermatu dezakeen buru-  
zagia izatera iristeko, edo norbere lurraldea eta umeak babesteko izan ohi  
da. Batek galtzen duenean, galtzeak ere, zentzua baitu naturan. Hala ere,  
gure jokabideak naturatik kanpo daude sarritan, zentzuak tokia hartzen ez  
duen leku batean. Ez duzu uste, Oihana?

Zuzen bitez nire zutabeko azken hitzok, Debabarrenean udaberri honetan  
jaio eta haziko diren izaki guztiei; San Lorentzo errekaiko zubipean  
kumatuko duen ur zozo ederrari; Saharako basamortua gurutzatu eta Be-  
raseta baserrira itzuliko den enara familiari; Errementariko basoan zuhaitz  
batetik bestera lehen aldiz salto egiten ikasiko duten katagorriei; Kortabe-  
rriko maldan koskortuko diren ehunka haginei; gure zeruetara itzuli den  
erregina saizuriari; zuri, eta zutabe honetan nire lekua hartuko duen hurren-  
go fitxajeari.



Oihana  
Tarragual



Baina nora zoaz, Ibai? Nire ondoan baino hobeto  
non egongo zara zu? Kar kar kar...

Despedidak gustuko ez ditudanez, gero arte esan-  
go dizut.

Bidean berriro gurutzatu gaitzke, edo ez. BARREneko zure  
etapa amaitu da eta ze demontre, gauzak bukatu egin behar dira beste  
berri batzuei ongi etorria emateko.

Zutabegile bat galdu dut nik, eta zuk ate berriak ireki dituzu. Naturan  
bezala, galtzeak ere zentzua baitu, galtzeak ere irabaztea esan nahi due-  
lako.

Askotan lo hartzen dugu gizarte zoro honetan, eta alperu egiten ga-  
ra. Baina noizean behin, stop! Eta beste bide bat hartu behar dugu. Es-  
perientzia berriak bizi eta altxor hori betirako gure barruan gorde.

Aldaketak beti dira onak niretzat. Baina onartu behar dizuet, fitxaje  
berria nor izango den jakiteko irrikitan nagoela! Eta casting bat egiten ba-  
dut? “BARREne idazteko castinga”. Imajinatzen al dituzue sekulako  
jende ilarak Mendaron, nire etxe azpian, eta ni hortxe, Risto Mejideren  
antzera zorrotz-zorrotz jendea aukeratzeko? “Zuk gabonetako postalak  
idaztearekin nahikoa duzu, zoaz etorri zaren tokitik”. Ederki pasako nu-  
ke, ez pentsa. Baina ez, hori telebistako showmanentzat utziko dugu.

## “Edonorekin konpartituko nituzke makina bat hitz”

Ez dut casting bat egingo. Edonorekin konpartituko nituzke nik ma-  
kina bat hitz. Jendea eta giza harremanak maite ditut. Beraz, hemendik  
nire gonbitea edozein mendaroarri.

Edozertaz eta inolako baldintzarik gabe, garbi eta ozen idatzi nahi  
duenak ondoan aurkituko nau. Proposamenak onartzen ditut.

Animatu!!!! Ta zuri, Ibai, zorte on!



Elgoibarko Udalak



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Maiatzaren 21erako lanuztea deitu dute ELA, LAB, EILAS, ESK, EHNE eta Hiru sindikatuek.

## Greba orokorra egiteko arrazoirik badagoela uste duzu?



**Javier Ziorraga**  
43 urte, pintorea

Egia esanda, ez naiz ezertaz enteratu, ez dakit greba zeren kontra-koa den. Ez dut informaziorik jaso. Enpresan hitz egingo dugu eguna iritsi ahala, eta denon artean erabakiko dugu greba egin ala ez. Normalean ez dugu bozketarik egiten, bera eginda hartuko dugu erabakia.



**Rosa Labrador**  
53 urte, zaintzailea

Bai, nire ustez badaude greba egiteko arrazoiak, eta gure enpresan gehienok egingo dugu greba. Espero dut jende askok hartzea parte deialdi horretan. Zenbat eta jende gehiagok greba egin, eragina handiagoa izango da, eta denok inplikatu behar dugu.



**Clara Mejias**  
27 urte, administraria

Ez daukat idearik ere! Badakit greba deialdia egin dutela sindikatuek, baina ez dakit zein den arrazoia. Orain dela bi hilabete jaio da umea, eta bajan nagoenez, ez diot kasurik egin gai horri. Une honetan ez dit eragiten, eta senarrak ere ez dakit greba egingo duen ala ez.



**Ana Caballero**  
37 urte, dendaria

Zein grebari buruz ari zara? Daudakadan lehenengo berria da. Ez daukat telebista ikusteko denborarik, eta ez nekien ezer. Gobernuak hartutako jarrera ez zait gustatu, dirua langileei eman behar zaie, eta ez banketxeei. Horren kontra protesta egiteko bada, ondo iruditzen zait.

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Apirileko irabazlea:  
**ROSI LABRADOR**

Maiatzeko saria:  
**PLANTXA TXIKIAK  
ETA BABESTEKO  
ESPRAIA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26

**CORDON VILARCHAO**

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko ardatzak  
Zolak ezarpenak  
Lakaduraz egiten, aluminio, PVC,  
Pinturaz onakota

San Roke, 7 behea  
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modulos  
Tel. 943 748 570

ECANIZADOS  
**S.COOP  
BUKATU.**

OLASO Poligono Industrial - Olaso kale, 6  
66 atea - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98  
20870 ELGOIBAR  
E-posta: [bukatu@bukatu.es](mailto:bukatu@bukatu.es) - Htt: [www.bukatu.es](http://www.bukatu.es)





**Giza Eskubideen parkeko iturria ez dute batere zaintzen:** "Usuako parkeko iturria oso polita da, dotorea eta ingurua asko janzten du, baina ez dago ondo zainduta. Hainbeste diru gastatu ondoren, beste modu batean zaindu beharko litzateke, eta gehiagotan garbitu. Laster zapaburuak sortuko dira ur zikin horretan, eta pena da".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) / 943-74 41 12



**Txalo bero bat Semana Das Letras Galegas antolatatu zituztenei:** "Eguralidak gehiegi lagundu ez bazuen ere, oso ondo egon zen galiziarren jaiak. Aurren, gainera, karpa handiagoa jarri dute, eta euria egin arren, bazegoen Galiziako produktuak dastatzeko aukera. Giro polita egon zen asteburu osoan zehar. Eskertzekoa da, baita ere, olagarroaren prezioa merketu izana. Azken urteotan oso garesti egon izan da-eta". ←



**Loritoneko eraikineko fatxada oso polita geratu da:** "Berrikuntzak egin dituzteko Ego-Toki elkarreko fatxadan, eta oso polita geratu da. Desberdina eta originala iruditu zaigu. Herriko fatxadak oso politak jartzen ari dira azkenaldian, eta hori txalotzekoa da. Segi horrela!". ⇒

**PREST**

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

**UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!**

**PREST!**

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

## ATE IREKIAK

*etorriko zarela jakinarazi!*

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

**MAIATZAK 28 - 17:30** osteguna **2.zikloa**

ARRASATE-MONDRAGÓN AULA MAGNA

Tel.: 943 73 96 29 // [bguerenu@eps.mondragon.edu](mailto:bguerenu@eps.mondragon.edu)

**ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**MAIATZAK 28 - 18:00** osteguna

IRUN AULA MAGNA

Tel.: 943 63 91 29 // [ioiartzabal@bidasoa.etec.mondragon.edu](mailto:ioiartzabal@bidasoa.etec.mondragon.edu)

izena emateko epea zabalik  
**ekainaren 19ra arte**

## Debarreneko 97 enpresa-batzordek bat egin dute Maiatzaren 21eko greba orokorrarekin

Sindikatuak Eibarren egingo den eskualde-manifestaziorako deia egin dute

**G**reba Orokorra deitu duten sindikatuek (ELA, LAB, ESK, STEE, EHNE eta Hiru) prentsaurrekoa eskaini zuten eguaztenean Maiatzaren 21ean greba egiteko arrazoiak azaltzeko. Azken urteotan langileak jasaten diharduten egoera salatzea da grebaren helburu nagusia. Euren esanetan, azken hamabost urteotan lan mundua prekarizatu egin da, eta enpresari klasea aberastu egin den bitartean, langile-egoera gero eta okerragoa da.

Sindikatuaren arabera, Debarreneko 97 enpresa-batzordek bat egin dute greba deialdiarekin, eta tartean Elgoibarko hainbat enpresa-batzorde daude: besteak beste, Ojmar, Goratu, Rodisa, Alkorta, Etxepe, Etxetar, Unzeta burdindegia eta Cometel.

### Manifestazioak

Bestalde, 5:30etik aurrera herri guztietan piketeak izango direla gogoratu zuten. Donostian 12:00etan egingo da herriale manifestazioa. Bide batez, eskualdeko manifestazioetan



parte hartzeko deia egin zuten. Debarreneko manifestazioa Eibarren izango da, Untzagan Plazan hasita arratsaldeko 18:30ean.



### Autogintzako irakasleak Alemaniako kontsumo baxuko auto lehiaketan

Mekako Autogintzako irakasleek kontsumo baxuko autoen lehiaketan hartu zuten parte pasa den asteburuan Lausitzen, Alemanian. Autoaren kontsumoa eta egindako distantzia hartzen ziren kontuan, eta elgoibartarrek 530 kilometro egin zituzten, gasolina litro baxuarekin. Elgoibarko taldeak lehiaketa honetan parte hartu duen estreinako aldia izan da, eta 200 partehartzailetatik 56. postuan amaitu dute.

### Gipuzkoa Innova sarietan aipamen berezia jaso zuen Txarriduna hotelak

Mekaren eraikin berrian banatu ziren maiatzaren 7an Gipuzkoa Innova sariak, eta Eibarko Tagzania enpresa izan zen irabazlea. Bost hautagai zeuden saria irabazteko; tartean Txarriduna hotela, eta azkenik aipamen berezia jaso zuen. Ekimen horretan, bestalde, ekintzaile sariak banatu zituen Debegeak. Hauek izan ziren irabazleak: Mutrikuko Arbe hoteleko Itziar Sukia, irmotasunarengatik; Hadimek enpresako Iker Aldabaldetretu, erakutsitako ekimenarengatik; eta, azkenik, Kinaka Design, talde-espirtuagatik. Bestalde, Elgoibarko HRE Hidraulik enpresako Mikel Ezenarrok *Bai Industriari* izeneko aipamen berezia jaso zuen.





## Lekua **Mintxetako igerilekuak**



Uda honetan taberna zerbitzua jarriko dute Mintxetako igerilekuetan. Udalak lehiaketa publikorako deialdia egin du negozioaren ardura adjudikatzeko, eta irabazleak hamabost urterako ardura izango du. Kontratua eskuratzen duenak, bestalde, taberna zerbitzuaz gain, kafetegi zerbitzua eskaintzeko eraikin bat egokitu beharko du bigarren urtetik aurrera; eta ondorengo bi urteetan jatetxe zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren obrak ere egin beharko ditu.

## Eguna **Elkartasun Eguna**

Debabarreneko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatuta, Elkartasun Eguna izango da datorren maiatzaren 23an, presoek sakabaneta, isolamendua eta eskubide urraketa salatzen. Egun horretarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte: 10:00etan ibilaldi martxa bat irtengo da Ermutik, eta 11:00etan, berri, beste talde bat Mutrikutik. 13:30ean egingo diete harrera ibilaldia egin dutenei Elgoibarko Plaza Handian, eta argazkia aterako dute. Ondoren, herri bazkaria egingo dute elizako arkupeetan, eta arratsaldeko 18:30ean manifestazioa egingo dute, eta ondoren ekitaldi politikoa. Gaueko 22:00etan Deskontrol, Hesian eta Kokein taldeen kontzertua izango da Gaztetxean.

## Irudia **Istripua zapatuan**

Eibartik Debarako norabidean zihoan auto gidari batek istripua eduki zuen zapatuan Elgoibarren. Autoak laban egin zion, eta Sigmako zubiko petrilaren kontra jo zuen. Kolpe handia izan zen, eta ibaira erortzeko zorian gelditu zen autoa. Istripuaren arrastoak ikusi daitezke oraindik beheko erretratuan. Arrasateko neska gazte bat zen gidaria, baina ez zitzaion ezer gertatu.



## **Pintxo lehiaketa izango da ekainaren 26an eta 27an**

Elgoibarko Izarraren Gurean-Bai Ostalaritza egitasmoak pintxo lehiaketa antolatu du, euskara eta ostalaritza uztartzeko helburuarekin. Lehiaketa ekainaren 26an eta 27an izango da. Establezimendu bakoitzak pintxo bakarria aurkeztu ahal izango du lehiaketara, eta euro batean saldu beharko du. Epaimahaia bost lagunek osatuko dute, eta bi sari banatuko dituzte: pintxo onenaren saria eta herritarrek emandako saria. Izena emateko azken eguna maiatzaren 18a izango da. Informazio gehiago eskuratzeko 943 741 746 (Amaia) telefonora deitu daiteke.

## **1973koen kinto bazkaria**

1973an jaio eta Elgoibar Ikastolan ikasi zutenek kinto bazkaria egingo dute bihar, maiatzak 16. Interesatuak eguerdiko 13:30ean Lanbroa tabernan elkartuko dira, eta bazkaria 14:30ean izango da Sigma jatetxean.

## **Bizikidetza neurtzeko kale inkestak egingo dituzte**

Elgoibartarren arteko bizikidetza neurtzeko ikerketa egiten dihardu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Diagnostika egin ahal izateko, kale inkestak egingo dizkiete 500 bat elgoibartarri datozen egunetan. Gainerako eragileekin (elkarte, ikastetxe, enpresa, udal ordezkari...) foro edo eztabaidaguneen bitartez eskuratuko dute behar duten informazioa.

## **Nagusientzako azokan izena emateko azken eguna, hilak 8**

Debegesak antolatuta, Expoadintsu azoka izango da irailean Eibarko Astelena frontoian. Bertan Eskualdeko Udaletxeek, Elkarteek eta Enpresek parte hartuko dute, nagusientzako edo euren familientzat produktu, zerbitzu edo baliabideren bat eskaintzeko. Izena emateko epea ekainaren 8an amaituko da.

amaraunean



# arriskuei aurrea hartzen

**Gaurko gazteek ezin dute imaginatu euren bizitza Internetik gabe. Azken boladan, sare sozialak erabiltzen dituzte lagunak egiteko, edota betiko lagunekin harremanak izateko. Gaztelekuak, Gazte Informazio Gunearekin elkarlanean, tailerra eman du aste honetan, gaztetzoei Internet behar den moduan erabiltzeko eta gerta litezkeen arazoei aurrea hartzeko.**

Oier Narbaiza

## Interneten segurtasunari buruzko informaziorik ez dute jaso adin txikikoen erdiek

**B**atez ere, azken boladan, sare sozialek eta *Youtubek* hartu dute garrantzia gazteen artean, Interneten, nahiz eta ziber espazioak eskaintzen duen aukera oso zabala izan. Internet gauza arrunta da gazteenentzat, baina, oro har, praktika berria da, tradiziorik gabekoa. Horrexegatik, jarraibide jakin batzuk behar direlakoan, Gaztelekuak, Gazte Informazio Gunearekin elkarlanean, Internet erabiltzeko tailerra ematen du aste honetan.

Askok naturaltasun handiz ematen dituzte datu pertsonalak Interneten, horrek ekar ditzakeen arriskuak kontuan hartu gabe. Horrez gain, askotan jakin gabe, legez kanpoko hainbat jarduera egiten dituzte gazteek: musika jaitsi, norbaiten erretratuak baimenik gabe igo, norbait iraindu...

Gazte Informazio Guneko Naiara Martinen ustez, "askok euren bizitzari buruzko informazio guztia jartzen dute Interneten, edozeinek bisitatzeko moduan". Batzuek, esate baterako, parrandetako argazkiak igotzeko aukera izaten dute, eta edozeinek ikus ditzake erretzen edo edaten: bai gurasoek, bai lan bila ezagututako enpresako buruak, bai beste edozeinek.

Internet mundu osoari zabalik dagoen leihoa denez, kontu handia izan behar dela erakutsi nahi izan du Gaztelekuko tailerrak

aste honetan. Horretarako, asmatutako identitate bat sortu dute *Tuenti* sare sozialean. Egoera ezberdinetan sortu litezkeen arriskuak modu praktikoan aztertu dituzte.

### Prebentzioa, onena

Azken batean, Interneten ere prebentzio neurriak hartzea ezinbestekoa da, ezustekorik ez gertatzeko. Adin txikikoek segurtasun arauari buruzko oinarritzko informazio gutxi dute: %54,5ek, behintzat, ez du jaso, ACPI eta Protegeles elkarteentzat egindako ikerketaren arabera.

Espanian, Interneten dabilzan adin txikikoen %30ek noizbait eman izan du bere telefono zenbakia, ikerketa horren arabera. Helbidea, berriz, %16k eman izan du. Inkestatutako adin txikikoen %14,5k inoiz hitzordua jarri du Internet bidez ezezagun batekin.

Prebentzioa da arriskuak albo batera lagatzeko modua. Aipatutako ikerketak behar hori nabarmentzen du. Izan ere, Inter-





## Eider Olaia Cristina

### “Egunero sartzen gara ‘Tuenti’ sarean”

#### Zertarako erabiltzen duzue *Tuenti*?

Gure argazkiak igotzeko eta lagunaren argazkiak ikusteko; ezagutzen ez ditugun pertsonen argazkiak ikusteko eta komentarioak lagatzeko. Beste batzuek zure elkarrizketa ikustea ez baduzu nahi, pribatua jarri daiteke. Edozeinek ikustea nahi baduzu, blogean jartzen duzu. **Noiz hasi zineten?**

Orain dela hilabete batzuk.

#### Lagun berriak egiteko erabiltzen duzue?

Bai, baina ez baduzu nahi, ez duzu pertsona asko ezagutzen.

#### Lagun berri asko egin dituzue?

Ez asko.

#### Zenbat?

Batzuek ehun bat, baina beste batzuek askoz gutxiago.

#### Zer esaten dizute gurasoek?

Ez zaie gustatzen gure argazkiak igotzea. Argazkietan pertsonak etiketatuta ditzakezu, izen-abizenekin, baina hori ez zaie gustatzen. Azkenean, lagunek ikusteko moduan jartzen duzu, eta kitto.

#### Egunero sartzen zarete?

Bai. Ordu erdi inguru.

#### Imaginatuzuen bizitza Internet gabe.

Ezinezkoa izango litzateke. Entziklopedia batean gauzak topatzea zaila da, ez digutela hori egiten irakatsi. Internet erraza da.

net sarritan darabilten adin txikikoen artean, %44k sexu jazarpena sentitu izan du. Irainduta %11 sentitu izan dira.

Sare sozialetan lagunak ondo aukeratzeari komeni da, adituen iritziz. Edozein pertsona onartzeak arriskuak ekarri litzake. Era berean, hobe da lagunak pribatua izatea. Sarera igotako argazki eta bideoak ere edozeinek ez ikusteko moduan gordetzeak arriskuak saihesten ditu. Horrekin batera, bada aukera *Google* edo beste edozein bilatzailetan norberaren sare sozialari buruzko informazioa ez topatzeko.

#### Sare sozialak

Interneteko sare sozialen erabilerak gora egin du azken urteotan. *Facebook*, *Tuenti*, *Fotolog*, *Hi5*, *MySpace* eta *Twitter*, adibide batzuk baino ez dira. *Tuenti*-k arrakasta handia izan du gaztetxoaren artean, eta *Facebook*-en hogeitertietik gorakoek erabiltzen dute, oro har. Sareok dinamiko-

ak, berehalakoak eta oso interaktiboak direnez, arrakasta handia lortu dute denbora gutxian.

Sare sozialek lagunekin erlazioatzeko balio dute: besteak beste, planak egiteko hitzorduak jartzeko balio du, argazkiak trukatzeko eta zaletasunei buruzko komentarioak egiteko.

Horrez gain, batzuek lagun berriak egiteko ere erabiltzen dituzte sare sozialak. Baimena emanez gero, lagun baten laguna norberaren sare sozialaren parte izan daiteke, eta gero lagunaren lagunaren laguna. Mugarik gabeko kate horretan sartuz gero, kontrolatu ezina da norberari buruzko informazioa norberaitzen duen, non eta zertarako.

Hainbat erabiltzailek informazio asko ematen du, datu pertsonalei buruz, bizilekuari buruz, laguneri buruz zein eguneroko errutinei buruz. Informazio gehiegi ezezagunaren esku geldituz gero.

## SARE SOZIALAK

- Ondo aukeratu sare soziala.
- Zaindu zuri buruzko informazioa. Zurekin kontaktatzeko informazioa ezkutatu. Ez ditzala edozeinek zeure datu pribatuak ikusi.
- Lagunak ondo aukeratu: lagun kopuruak ez du garrantzirik, bai, ordea, sarea ondo erabiltzeak.
- Lagunen zerrendak erabili: lagunak taldeetan sailkatzeko aukera dago (familia, lana, koadrila...).
- Lagunak pribatua gorde: baka-rik erabiltzaileak ikusi ahal izateko moduan.
- Ez dezatela etiketak jarri zeure irudi *arrisksuetan*.

## IRAIN ETA MEHATXUAK

- Txantxetan dabilen lagunaren bat ez dela ziurtatu: galdetu laguneri zerbait dakiten.
- Ez erantzun irainak edo mehatxuak egiten badituzte.
- Gurasoei azaldu gertatutakoa.
- Gertatutakoa salatu: idatzi adin txikikoen babeserako elkartera (ACPI): [a.acpi@terra.es](mailto:a.acpi@terra.es)

## E-POSTA

- Ez erantzun, mezuren batek kezka eragin badizu, edo mezua lizuna edo erasokorra bada.
- Doako kontuak erabili, Hotmail edo Gmailen modukoak, zezagun baten harremanetan jarri behar izanez gero.

## WEB ORRIAK

- Leku seguruetan nabigatu: babes-filtroak erabili.
- IP dinamikoa izatea komeni da nabigatzeko: ez zaituzte hain erraz topatuko.
- Salaketa jarri: haur pornografia, arrazakeria eta mehatxuak dauzkaten web guneak aurkituz gero.

## Elgoibarko danborradak Arabako Guardia herrian joko du

Bestalde, danborradako kartel lehiaketa Jabi Barrenetxeak irabazi du

**E**lgoibarko danborradak Guardian joko du San Juan jaien atarian, i ekainaren 20an. “Danborradak jo behar duenez, Udal Musika Banda ezin zen joan gabe geratu, eta beraz, biek joko dute danborrada”, azaldu du Elgoibarko Udaleko kultur zinegotzia den Iñigo Zearsolok.

Ekainaren 20an izango da danborrada, eta 19:00etan hasiko da: “Ordu eta erdi edo bi orduko iraupena edukiko du Guardiako kaleetan. Ekintza oso garrantzitsua da, Guardian lehenbiziko aldiz joko delako danborrada, eta ohore handia da elgoibartarren eskutik izatea. Eurak pozik daude, eta gu, gehiago”, gehitu du zinegotziak.

Juan Carlos Arrieta danborradako presidentea pozik agertu da gonbidapenarekin: “Oso pozik gaude danborradak kanpora irteten duen lehen aldia delako”.

Bestalde, Trinitateetako Nagusien Danborradako aurtengo kartela eginda dago. Jabi Barrenetxeak irabazi du lehiaketa. Danborrak irudikatu ditu kartelean, eta 300 euroko saria eskuratu du.



Barrenetxearen lagun bat saria jasotzen

## Jaien balorazio ona egin du Galiza Kultur Etxeak

Joan den asteburuan *Semanas das letras galegas* jaia ospatu zuten Elgoibarko Galiza Kultur Etxekoek. Urtero bezala, eguraldiak ez du asko lagundu, baina antolatzaileek balorazio positiboa egin dute: “Balorazio oso positiboa egin behar dugu: batetik elgoibartarrek parte hartu dutelako jaian, eta bestetik egin dizkiguten komentario guztiak onak izan direlako. Galizako produktuek harrera ona daukate elgoibartarren artean: batez ere olagarroak, Albariñoak eta *queimada*-k. Gainera galiziarren etxeko bazkideek egindako lana ere baloratu behar da. Eurek zerbitzatu dute aurten, eta horren ondorioz prezioak jaitsi ahal izan ditugu, eta hori kontuan edukitzekoa da krisi garaian”, azaldu du elkarteko presidente orde eta kulturako arduraduna den Ovidio Campellok.

Aurten estreinakoz karpa handi bat jarri dute, eta horri esker antolatutako emanaldi guztiak egin ahal izan dituzte: “Udalak lagatako karpa zen, eta horri esker zapatuko emanaldia ospatu ahal izan genuen: mahaiak kendu behar izan genituen, baina, behintzat, ez zen bertan behera geratu”.

Esker ona erakutsi nahi izan du Campellok: “Herriarrei, tabernei eta dendei esker ona erakutsi nahi diegu laguntza handia eman digutelako, eta Udalari ere bai eman. Barkamena eskatu nahi diegu inguruko bizilagunei traba egin badiegu musikarekin-eta”.





# Naturaren hainbat aurpegi erakutsiko ditu 'Objektibotik: euskal natura argazkitan' erakusketak

Guztira 32 argazki egongo dira ikusgai, tartean, Antton Alberdi elgoibartarrarenak

Ongarri argazki taldeak eta Euskalnatura.net atariak antolatuta, *Objektibotik: euskal natura argazkitan* erakusketa ekarriko dute Elgoibarrera. Astelehenean, hilaren 18an, hasiko da Elgoibarko Kultur Etxean, eta ekainaren 3ra arte ikusi ahal izango dira argazkiak. Guztira formatu handiko 32 argazki egongo dira ikusgai astelehenetik zapatara, (19:00etatik 21:00etara). Naturako aurpegi xamurrenak, gogorrenak eta liluragarrienak aurkezten dituzte argazkiek.

*Euskalnatura.net* web gunean kolaboratzen duten argazkilariek hartu dute parte: Pedro Aierbek, Jose Mari Llabori Romatetek, Ander Olaizolak, Mikel Tapiak, Luis Llaborik, Peio Romatetek, Felix Urrutiak, Joxerra Ahiartzak, eta Elgoibarko Antton Alberdik (biologia ikaslea).

## Hilaren 22an, bisita gidatua

Landare, onddo, animalia eta paisaien argazkiekin osatu dute Elgoibarko Kultur Etxean ikusi ahal izango den erakusketa. Gainera, argazki bakoitzak bere fitxa informatiboa dauka, argazki-teknika eta erretratuko objektuaren inguruko informazioa biltzen duena.

Maiatzaren 22an, barixakua, 19:30ean, erakusketaren bisita gidatua egingo dute. Euskalnatura.net-eko kideek euren egitasmoaren eta argazki erakusketaren berri eman godo dute. Jarraian bisita gidatuak eskainiko dituzte.



## Elgoibarko Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan Herriko Antzokian

Udal Musika Bandak sei pieza eskainiko ditu domekako kontzertuan, Herriko Antzokian, 12:30etik aurrera. Aurrez, baina, kalejira egingo dute herriko kaleetan barrena 10:00etan hasita.

Kontzertuko egitaraua honako hau izango da:

- 1.- *Cadiz*, pasodoblea (Chueca-Bonete).
- 2.- *Marcha hungaras*, (H. Berlioz).
- 3.- *Lawrence de Arabia*, pelikulako soinu banda (N. Jarre).
- 4.- *Independence day*, fantasia (D. Arnold).
- 5.- *Entre flores*, dantza (J. Pacheco).
- 6.- *Homenaje a Mexico*, selekzioa (C. Cervero).

## 'Ahozotasuna eta Bertsolaritza' martitzenean

Datorren martitzenean, hilaren 19an, 18:30ean Herriko Antzokian, Ahozotasuna eta Bertsolaritza egitasmoa jaialdia egingo dute. Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak herrialde osoko hainbat Udal eta ikastetxerekin elkarlanean daraman proiektua da, eta bertan ikasitakoa jendaurrean erakutsi ahal izango dute ikasleek. Iaz, 135 umek hartu zuten parte.

## Ludotekako bazkidetza

Maiatzetik uztaileira bitartean, HH5-etik LH6. mailara arteko Elgoibarko haurrek, ludotekako bazkide egiteko aukera izango dute hamar euroren truke. Familia ugariak zazpi euro ordaindu beharko dituzte eta gizarte zerbitzuetako zenbait programen onuradunek doan izango dute.

Bazkide egiteko, ludotekara joan behar da izenemate fitxa betetzera, argazki batekin eta ordainketa agiriarekin. Familia ugarien kasuan, agiriaren kopia bat aurkeztu beharko da; gizarte zerbitzuetako onuradunen kasuan, berriz, ziurtagiria.

Ordainketa Udaleko honako kontu korrontean egin behar da: 2101 0036 69 00000 89508.

## Ikasketa gela irekiko dute

Maiatzaren 18tik aurrera, Kultur Etxeko sotoan ikasketa gela irekiko da eta uztailearen 5era arte egongo da irekita. Ordutegia: astelehenetik domekara, 9:00etatik 21:00etara.

## Elgoibarren ere Athleticen zaleen ilusioa zapuztu zuen Bartzelonak

Talde zuri-gorria aurreratu zen markagailuan, baina azken emaitza 1-4 izan zen, kataluniarren alde

Zuria eta gorria izan dira aste honetako koloreak Bilbon, Bizkaian eta Valentzian. 25 urteren ondoren Errege Kopako finalerako sailkatu ziren zuri-gorriak, eta zaleek amets egin dute. Urte asko izan dira, gehiegi akaso, neurri honetako partidarik jokatu gabe. Elgoibarren ere igarri da ilusio horren indarra, eta eguazten gauean herriko hainbat taberna eta elkartetan bildu zen jendea partida ikusteko. BARRE-Nek Athleticen zaleekin ikusi zuen norgehiagoka Elgoibarren. Lehenengo zatia Kaian eta bigarrena Txarriduna hotelean.



Partida hasi aurretik ilusioz begiratzen zion Etxebek Kopari.

Partida ondo hasi zen Mestallan. Athletic nagusi zen berdegunean, eta Kopa irabazteko aukerak ikusten hasi ziren Athleticen zaleak Kaian. Poliki-poliki Bartzelonak bere eran antolatu zuen jokoa, baloiaren jabetza hartu zuen, eta bere legea ezarri zuen zelaietan. 90 minutuak oso luze joan ziren, eta azkenean Athleticen zaleen ilusioa zapuztu zuen Bartzelonak. 1-4 kataluniarren alde, eta Joseba Etxeberriak ezin izan zuen Kopa altxatu. Negar malkotatu zuen norgehiagoka Etxebek, baina zaleen indarra eta berotasuna ez zitzaion falta izan. Ezin izan zuten Kopa Bilbora ekarri, baina zaleen jarrera txalotzekoa izan zen. Hona hemen Errege Kopako finalak Elgoibarren eman zuena.



### Athleticek gola sartu zuen unea beheko erretratuetan

Indarra bidaltzen diete Elgoibartik Mestallara, eta pozez zorutzen daude, sinistu ezinda. Hala ere, gola azkarregi iritsi delarik, indartsu daude Bilboko *lehoiak* eta berdegunean jokalariek zuri-gorriak nagusi dira. 1-0, Athletic aurretik 9. minutuan ikusi daiteke elgoibartarrak Toqueroren gola ospatzen.







## Bartzelona nagusitzen hasi zen

Lehenengo golaren ondoren, Athleticcek erritmoa jaitsi duela dirudi, eta Bartzelonak pare bat susto eman dizkio. Elgoibarko zaleek bihotzari eutsi behar izan diote kataluniarren falta jaurtiketa batean, eta batzuk esan dute hori jasanezina dela. Partida itxura txarra hartzen hasi da, eta 31. minutuan iritsi da Bartzelonaren gola. Alboko irudietan elgoibartarren tristura ikusten da, sufritzen ari dira. Banako emaitzarekin iritsi dira atsedenaldira.



## Aurpegi luzeak bigarren zatian

Txarriduna hotelean pantaila handia jarri dute, eta herritar asko bildu da partida ikusteko. Aurpegi luzeak aurkitu ditugu, baina oraindik ez dago dena galduta. Bata bestearen atzetik etorri dira, ordea, Bartzelonaren golak, eta horrek lur jota laga ditu Elgoibarko zaleak. 61. minutuan Caparrosek Etxebe zelairatu du, eta haren aldeko oihuak nagusitu dira. Elgoibar kapitainarekin dago! Azkenean, baina, 1-4 emaitza ageri da markagailuan, Bartzelonaren alde. Etxeberen eta Athleticen zaleak buru makur doaz etxera. Beste batzuk, aldiz, pozik. Futbola horrelakoa da.



*Gutxi izan arren, Bartzelonaren aldeko zaletuak ere baziren Txarridunan.*

diote batzuk, eta hemendik aurrera sufritzea tokatuko zaiela badakite. Norgehiagoka luzea izango da, baina Athletic ondo jotuan. "Nire ametsik onenean ere ez nuen sekula horrelakorik imaginatuko", esan du Mikel Dakintak. Beheko argazki sekuen-



# Zallaren kontrako partida irabazi behar du Haundik igoera fasean sartzeko

Norgehiagoka bihar izango da, 18:00etan Mintxetan

**L**igako azken jardunaldia jokatu du bihar Haundik Zallaren kontra, eta igoerako kanporaketak jokatuzko irabazi egin behar du, nahi eta nahi ez. Joan zen astean Lagun Onak taldearen kontra galdu ondoren, laugarren postuan dago Elgoibarko taldea 67 punturekin, eta Beasain taldearekin berdinduta dago. *Play off*-ean sartzeko postu horri eutsi behar dio. Partidua bihar jokatuko da Mintxetan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. CD Elgoibarrek herriarrak animatu nahi ditu Mintxetara joateko. Hori dela eta, sarrerak sei eurotan jarri dituzte.



## Elgoibarko mendi itzulia domekan izango da

Morkaikok antolatuta, hilaren 17an izango da Elgoibarko mendi itzulia. Irteera goizeko 6:00etan izango da Plaza Handian, eta bertan izena emateko aukera egongo da, bazkideek 12 eurotan, eta gainontzekoek 15 eurotan. Ibilaldia amaitu ondoren, Merkatu Plazan egingo dute bazkaria.

## Elgoibar aurrera herriarteko pilota txapelketan



Lasarte-Oriaren kontrako itzulerako hiru partidak irabazi dituzte elgoibartarrek, eta final laurdenerako sailkatzea lortu dute Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketan. Hurrengo kanporaketa bihar, zapatua, jokatuko dute Donostiako taldearen kontra, Atano III. frontoian, 17:00etan hasita.

## IMH taldea Espainiako Eskubaloitxapelketan



Euskadiko Eskubaloitxapelketa irabazi ondoren, kadete mailako IMH taldeak Espainiako Txapelketarako sektoreko bigarren fasea jokatuko du Valladoliden asteburu honetan. Hiru partida jokatuko dituzte: Nafarroako Itxako, Galiziako Peguform eta Gaztelako Aula Kulturak izango dira aurkariak.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Lagun Onak 2- Haundi 0 (3. maila)  
Anaitasuna 3- Elgoibar 2 (1. erreg.)  
Elgoibar 1- Ostadar 2 (Jub.)  
Aloña Mendi 0- Elgoibar 1 (Kad.)  
Elgoibar 2- Ostadar 1 (Txik.)

### ARETO FUTBOLA

Orioko 2- Kenci Elg. 5 (Nazional B)

### ESKUBALOA

Aloña Mendi 25- Tecnifuelle Elg. 27 (Sen. nes.)  
Pulpo B 16- IMH Elg. 42 (Kad. nes.)  
Alcorta Elg. 21- Haritza 27 (Sen. mut.)  
Zarautz 25- Pneumax 34 (Kad. mut.)  
Ikus Elg. 16- Arrate 12 (Kad. nes.)  
Ordizia 18- Casa Astigarraga Elg. 12 (Inf. nes.)  
Caldereria Lili Elg. 16- Aterpe Elg. 12 (Inf. nes.)  
El Pilar 32- Bankoa Elg. 30 (Inf. mut.)  
Arrate 18- Txarriduna Elg. 15 (Inf. mut.)

### PILOTA

#### HERRIARTEKO TXAPELKETA

Elgoibar 22 / Lasarte-Oria 6 (Kad.)  
Elgoibar 22 / Lasarte-Oria 18 (Jub.)  
Elgoibar 22 / Lasarte-Oria 11 (Nag.)

#### DEBARROKO TXAPELKETA

Bergara 22 / Lagunak 6 (Kad.)  
Lagunak 22 / Aretxabaleta 3 (Jub.)  
Lagunak 18 / Aretxabaleta 22 (Nag.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 16  
12:45 Elgoibar - Ostadar (Kad.)  
15:30 Elgoibar - Tolosa (Erreg.)  
18:00 Elgoibar - Zalla (Haundi)

### ARETO FUTBOLA

Zapatua, 16  
18:00 Kenci - Tecuni (Sen. mut.)  
Domeka, 17  
10:00 Xagua - Martu (Sen. mut.)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

Barixakua, 15  
20:00 Cometel - Usurbil (Jub. nes.)  
Zapatua, 16  
10:00 Casa Astigarraga - Pulpo (Inf. nes.)  
11:30 Hotel Txarriduna - Leizaran (Inf. mut.)  
16:30 Bankoa - El Pilar (Inf. mut.)



Apirilean...

## JAIOAKOAK



**Uxue Cabrera Mejias**  
Martxoak 3  
Jose Ramon eta Clara.



**Amaia Mendia Marcos**  
Apirilak 28  
Mikel eta Ana Isabel



**Ekain Kapanaga Zaldia**  
Apirilak 29  
Imanol eta Leire



**Sare Herrero Ansola**  
Apirilak 30  
Manolo eta Maite



**Luken Zabaleta Etxeberria**  
Apirilak 27  
Aitor eta Miriam Elvira



**Mara Castrillejo Alonso**  
Martxoak 31  
Eroka eta Maria Esther

**Iraitz Ormaetxea Arroyo**  
Apirilak 7  
Jorge eta Kristina

**Yeray Calle Alves**  
Apirilak 8  
Jose Luis eta Adriana

**Ibai Tadeo Gofii**  
Apirilak 13  
Aritz eta Miren Koruko

**Nahia Leon Bautsita**  
Apirilak 15  
Haritz eta Begoña

**Olatz Garate Osoro**  
Apirilak 17  
Aitor eta Nerea

**Maidier Retolaza Rubio**  
Apirilak 24  
Ioseba eta Ana Maria

## EZKONDUTAKOAK

- Imanol Astigarraga eta Patricia Carcedo Apirilak 18

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo barixakurako ekarri behar duzu erretratua BARRENEko erredakziora edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbidera bidali. Ekainetik aurrera, jaiotakoen argazkiak jartzeagatik

2 euro kobratuko ditugu.

## HILDAKOAK

- Andresa Olano Zuazo • 83 urte • (Apirilak 2)
- Luis Oñate Arabaolaza • 85 urte • (Apirilak 2)
- Andoni Arregi Irizar • 38 urte • (Apirilak 5)
- Luis Mugerza Agirregomezkorta • 87 urte • (Apirilak 5)
- Lidia Charles Gutierrez • 68 urte • (Apirilak 6)
- Itziar Juaristi Zabala • 56 urte • (Apirilak 6)
- Jesus Ibabe Amutxastegi • 80 urte • (Apirilak 11)
- Julia Roman del Rey • 63 urte • (Apirilak 14)
- Juana Barrutia Gabilondo • 90 urte • (Apirilak 16)
- Araceli Egurrola Uriguen • 51 urte • (Apirilak 28)

# ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua  
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK

NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak

Erietxe  
zentruetan  
zerbitzuak

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
(Sakelekoa) 635 756 295

ESKERTZA

## IGNACIO GARATE GOIHARTZUN



2009ko apirilaren 30ean hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



**LANA**

**ESKAERA**

- Emakumea lanerako prest, haurrak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎**610 632 782**
- Emakumea lanerako prest, haurrak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎**618 096 628**
- Neska gaztea, zerbitzari lanetan, umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko prest. Esperientziaduna. ☎**617 056 828**
- Emakumea etxeko zerbitzari, garbiketa eta nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎**610 431 118**
- Mutila sukaldari laguntzaile, zerbitzari, pinturan edo nagusiak zaintzen lan egiteko prest. ☎**647 999 092**
- Mutila sukaldari laguntzaile, zerbitzari, pinturan edo nagusiak zaintzen lan egiteko prest. ☎**686 274 490**
- Neska gaztea haurrak edo nagusiak zaintzeko eta etxeetan, tabernetan edota portalak garbitzeko prest. Orduka. ☎**648 603 029**
- Emakumea portalak, soziedadeak, eta etxeak garbitzeko prest eta nagusiak zaintzeko prest. ☎**699 609 190**
- Aholkulari nutrizionista batek bere zerbitzuak eskaintzen ditu, hobeto elikatu edota pisua jaisteko. Inolako konpromisorik gabe. ☎**687 077 398**
- Gizona lanerako prest. ☎**686 161 828**
- Mutila lanerako prest. ☎**626 149 705**
- Mutila lanerako prest. Galdaragintzan laguntzaile gisa eta eraikuntzan esperientziarekin. ☎**669 285 475**
- Emakumea lan egiteko prest. Nagusiak zaintzen es-

- perientziarekin. ☎**686 578 228 / 943 531 385**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Arratsaldez. ☎**943 74 32 51**
- Emakumea lanerako prest, garbiketa lanak edo haurrak eta nagusiak zaintzen. ☎**636 120 425**
- Emakumea garbiketa lanak, haurrak eta nagusiak zaintzeko prest edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko prest. ☎**618 163 061**
- Neska lanerako prest, umeak edo nagusiak zaintzen eta etxeak garbitzen. Goizez. ☎**943 74 00 65**
- Emakumea sukaldean laguntzeko, garbiketa lanetarako edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎**671 343 612**
- Emakumea garbiketa lanetarako edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎**943 53 19 03 / 669 311 385**
- Klase partikularrak emango nituzke, ingelesez eta frantsesez, biak ama hizkuntza. Mintza praktikak egiteko. ☎**688 663 274**

**ESKAINZA**

- Zerbitzari gaztea behar da, ahal dela esperientziarekin asteburetan lan egiteko. ☎ **943 53 16 28**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA**

- Bikote batek etxebizitza behar du alokatzeko. Elgoibar edo Mendaron. ☎ **677 023 673**

- Etxebizitza alokatzen da Elgoibarren, altzariek. ☎ **636 233 175**
- Etxebizitza alokatzen da Elgoibarko plazan, lau logela, egongela, bi bainugela, sukaldea, jangela eta terraza. ☎ **619 409 273**
- Etxebizitza alokatzen da San Pedron. ☎ **695 787 766**
- Etxea alokatzen da Gasteizen. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, bi terraza eta ganbara. Den altzaritua. ☎ **628 232 931**

**LOKALAK**

- 2. solairuko garaje itxia salgai Urasandin ("Anaiak"). (13+13 metro koadro). ☎ **620 856 768**

**BESTELAKOAK**

- Egongelako altzariak saltzen ditut, eta mikrouhin labea opari. ☎ **652 716 709**
- Asteburuan Basarteko jarleku batean giltzak galdu zituenak Udaltzaingoa aurkituko ditu.
- Etxeko altzariak, etxeko elektrotresnak, gortinak eta ohe-arropak behar dira. ☎ **676 444 171**

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK	
Lana / Bestelakoak	Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
<b>Astebete : 5 euro</b>	<b>Astebete : 10 euro</b>
<b>2 aste : 8 euro</b>	<b>2 aste : 17 euro</b>
<b>3 aste : 10 euro</b>	<b>3 aste : 25 euro</b>

**GIDA KOMERTZIALA**  
**2009-2010**

Gida komertziala prestatzen ari gara,  
 zure negozioaren telefona agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara:

**943 743 704**

edo helbide honetara idatzi:

**barren.publi@elgoibarkoizarra.com**






• Zorionak, **Oier!** Bihar zortzi kandela itzaltzeko indarra hartu! Ondo pasa, mila pa!



• Zorionak, **Unai,** muxu handi bat familiakoen eta lagunen partez.



• Zorionak, **Julen,** bihar 5 urte egingo dituzulako. Familiaren eta Iñigoren partez.



• Zorionak, **June,** 6 urte bete dituzulako. Pa! Familiaren eta Noraren partez.



• Zorionak, **Yuri,** 5 urte egin dituzulako. Familiaren eta arreba Idoiaren partez, pa!



• Zorionak, **Helene,** 3 urte egin dituzulako. Pa! Gurasoen eta Daneleen partez.



• Zorionak, **Miriam,** 8 urte egin dituzulako. Etxekoan partez, muxu bat.



• Zorionak, **Malen,** laugarren urtebetetzean. Familiaren eta Maddiren partez.



• Zorionak, **Ane,** 2 urte egin dituzulako. Patxo handi bat familiaren partez.



• Zorionak, **Alain,** domekan urtebete egingo duzulako. Familiakoan partez.



• Zorionak, **Alex,** 4 urte. Pa! Etxekoan, ania Borja eta lehengusuen partez.



• Zorionak, **Alain,** 3 urte. Guraso, aitita-amama eta osaba-izebak partez. Pa!



• Zorionak, **Enara,** 15 urte beteko dituzulako. Muxuak familiaren partez.



• Zorionak, **Kiral** 2 urte betetzen dituzulako gaur. Familiakoan partez.



• Zorionak, **Naroa,** 3 urte 13an. Familia eta Uraitz eta Garazi lehengusuak.



• Zorionak, **Elsa,** domekan 3 urte. Muxu handi bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Olatz,** 7 urte. Familiaren partez (amona anai-arreba, lehengusu...).



• Zorionak, **Jon,** domekan 3 urte. Pa! Guraso, aitita-amama eta osaba-izebak.



• Zorionak **Elene,** gaur 6 urte. Izeko Ane, Josu, Patxi, Roke eta Manex.



• Zorionak, **Nadeth,** urte 1 egin duzulako. Pa! Ama, aitita eta familiaren partez.



• Zorionak, **Unax,** 5 urte. muxu handi bat danon partetik eta zoriontsu izan.




• **Amabxorik onenarentzat** zorionak Ireneren eta Ibonen partez.



• Zorionak **bikote!** Ondo pasa zuen 2. eta 5. urtebetetze egunean. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak **Imanol eta Aimar** 33 urte eta urtebete egin dituzuelako astean. Muxuak familiaren partez, bereziki Xuban eta Iruneren partez.



• Zorionak **Noemi eta Judith** 8 urte eta 5 urte egin dituzuelako!!! Ondo pasa!!!



• Zorionak **bikote!** Ondo pasa zuen 2. eta 5. urtebetetze egunean. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Iritsi da maiatza eta berarekin zuen urtebetetzeak. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak **Josu, Leire eta Juleneri!!!** Oso ondo pasatu ginuen domekan. Muxu handi bana, Mikelen partez.

## OKINDEGIAK

17 domeka **IZAGIRRE**

## FARMAZIAK

### 24 ORDUZ

15	Fernandez
16	Yudego
17	Yudego
18	Zabaleta
19	Etxeberria (Errosario)
20	Ibañez
21	Garitaonandia-Bidasolo
22	Etxeberria (Santa Ana)

### Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 16 38

### Fernandez


Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 75 61 42

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 13 84

## INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik



[www.elgoiBAREN.net](http://www.elgoiBAREN.net)



## 15 barixakua

### Aisialdia

17:30 Kiribilka egitasmoa

2 eta 6 urteko umeentzako eta euren gurasoentzako programa. Plaza Handian.

## 17 domeka

### Kirola

6:00 Elgoibarko mendi itzulia

Morkaikok antolatuta, Plaza Handian izango da irteera.

### Musika

10:00 Kalejira

Udal Musika Bandaren kalejira izango da.

### Musika

12:30 Bandaren kontzertua

Musika Bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian.

## 18 astelehena

### Erakusketa

19:00 Argazki erakusketa

Ongari argazki taldeak eta EHUK antolatuta, *Objektibotik: euskal natura argazkitan* erakusketa izango da. Ekainaren 3ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan.

## 19 martitzena

### Bertsolaritza

18:30 Bertso jaialdia

Bertsologintza egitasmoaren kurtsu amaierako jaialdia. Herriko Antzokian.

## 20 eguaztena

### Ikus-entzuneko

21:30 Euskal

**Mendizaletasunaren historia.**

Antxon Iturrizak eskainiko du emanaldia. Antolatzailea: Morkaiko mendizale elkarte. Musika Eskolako auditorioan.

## 21 eguena

### Herrialde-manifestazioa

12:00 Manifestazioa

Donostian

ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek deituta, Greba Orokorra dela-eta.

### Eskualde-manifestazioa

18:30 Manifestazioa Eibarren

Untzagatik hasita, ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek deituta, Greba Orokorra dela-eta.



### LUDOTEKAKO EKINTZAK

**EKAINAREN 30EAN  
AURREA HARTU UDARI!**

**BERMEO  
GAZTELUGATXERA IRTEERA**

**BALEONTZI BAT ETA ARRANTZALEEN  
MUSEOA BISITATUKO DITUGU!**

**GURASOEKIN EDO BAKARRIK  
PARTE HARTZEKO AUKERA**



### GAZTELEKUKO EKINTZAK

## GOGORATU

**MAIATZAREN 22A DELA  
UDALEKUETAN  
IZENA EMATEKO  
AZKEN EGUNA!  
ANIMATU!**

### «Lejos de la tierra quemada»

15, barixakua: 22:15  
16, zapatua: 19:00/22:15  
17, domeka: 19:00  
18, astelehena: 21:30

Estatu Batuak, 2008. Zuz.: Guillermo Ariaga. Akt.: Charlize Theron, Kim Basinger, Jennifer Lawrence. 108 min.

Sylviak iragan iluna du, eta jatetxe bateko arduraduna da. Mexikotik iritsiko

den bisitari batek iraganera itzularaziko du. Orduan, bidaia berri bat hasiko du Sylviak, zoriontsu izan nahi duten pertsonaia batzuekin harremanetan. Istri-pu batek dena aldatuko du.





## Gure gomendioa

### 'Euskal mendizaletasunaren historia: Pirinioetatik Everestera'

Maiatzak 20, eguaztena, 21:30ean, Musika Eskolan

Morkaiko mendizale elkarteak antolatuta, Euskal mendizaletasunaren historiari buruzko ikus-entzuzkoa eskainiko du Antxon Iturrizak. Euskal mendizaletasunaren historian egindako ibilbidea gerraosteko urteetan hasiko da. Garai hartan, mendizaletasuna indar handiz berpiztu zen, elkarre berriak sortu ziren, eta eskaladak lehen urratsak eman zituen. Hori guztia eta gehiago azalduko ditu mendizaleak.



# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Interneteko oinarriko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Kontsultatu  
Hasiera data: 2009-05-18  
Non: Elgoibarren  
Izenematea: Kzgunean (943 748 828)

### Baratza balkoietan

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2009-05-19  
Non: Elgoibarren  
Izenematea: Debemen elkartearen (943 744 067)

### Sukaldaritza begetarianoa

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Euskaraz  
Hasiera data: 2009-06-04  
Non: Elgoibarren  
Izenematea eta informazioa: 943 741 461

### Reiki ikastaroa, hastapena

Norentzat: Lanbidean alta emanda daudenenentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2009-10-31  
Non: Eibarren  
Izena emateko: Kontsultatu

### Excel ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2009-05-25  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko azken eguna: Maiatzak 25

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71



«Animal Channel»  
17, domeka: 16:30

Espainia, 2008. Zuzendaria: Maite Ruiz de Austri. Animaziozko filma. Cathy zikoinak eta Nicolas arratoiak lan egiten duten zi-

nema aretoa itxi egin dute. Bizimodua atera ahal izateko, Aita Arratoik zuzetzen duen kanal berrian berriemaile hasiko dira.

## Gure berbak

### Hiztegixa (4)

Gaurkuan ere, aurreko bi astietan bezela, Mendebaldeko hizkeretara hurreratzen gaituen berbak ekarriko ditut hona. Batzuetan, Erdialdeko hizkeretako (edo euskera giputzeko) berbeekin batera erabiltzen dira, bixak zein baiño zein: batzuetan alde batekoa izaten da nagusi, eta beste batzuetan beste aldekoa; oreka bat ere izan leike.

Bixetarako berbak edo aldaerak daudenian, normalian behintzat, adiñeko hiztunak erakusten debe Mendebaldeko hizkeratarako joera haundixagua, eta gaztiaguak, berriz, euskera gipuzterako eta bai euskera baturakua ere: Mendebaldeko hizkeren ezaugarriak indargaltzen ari jakuzela esan leike, hiztegixan ere.

- ◆ *kantsau (eta ez nekatu)*
- ◆ *ezteixak (boda-rekin batera)*
- ◆ *zilla (eta ez zilborra)*
- ◆ *lantzian behiñ (noizian behiñ-ekin batera)*
- ◆ *jaurti (bota-rekin batera)*

Berba berdiña izan arren, danok dakigu aldaerak izaten dirala euskalkixetan; hona hemen Mendebaldera egiten deben aldaera batzuk:

- ◆ *ardau (eta ez ardo)*
- ◆ *sa(ga)rdau (eta ez sagardo)*
- ◆ *sa(ga)rdandegixa (eta ez sagardotegixa)*
- ◆ *barre (eta ez parre)*
- ◆ *burdi (eta ez gurdi)*
- ◆ *gitxi (eta ez gutxi)*
- ◆ *urten (erten-ekin batera, baina ez irten)*
- ◆ *ugarixo (eta ez igel)*
- ◆ *gizur (eta ez gezur)*
- ◆ *ete (eta ez ote)*
- ◆ *narru (eta ez larru)*

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

1967

Aste honetako erretratu zaharra 1967. urteko gabonetakoa da, eta Castrillejotarren familia ageri da argazkian. Gabonetako arbola erabat apainduta azaltzen da atzeko aldean, eta umeak dotore jantzita ikusten dira, txistulari eta guzti.

Gogora ditzagun gazte horiek, ezkerretik eskumara: Kurutz, Marga, Txomin eta Felipe.



## ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENen argitaratzeko  
erretratu zaharrak baldin badituzu,  
eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea.  
Nafarroa Plaza 2, behea. 943 744 112 (Ainhoa)



# LURRALDEBUSeko istorioak

LURRALDEBUS

María, 68 urte

"Hirugarren adinekoentzako  
mozorro festa batetik dator."

Jatorria: Donostia Antiguoa  
Norakoa: Hernani

Arantxa, 71 urte

"Mariak hartzen duen autobus  
linea bera hartu ohi du.  
Bereizezinak egin dira."

Jatorria: Donostia Antiguoa  
Norakoa: Hernani

[www.lurraldebusekoistorioak.com](http://www.lurraldebusekoistorioak.com)



GIPUZKOA

zurekin, aurrera



# OSASUN GIDA



## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

### *Kemen Belardenda*

**Berria!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.**

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak), Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)  
San Bartolome, 25  
Tel: 943 744 031  
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### *Sanatana Dharma Yoga Elkarte*

Urasandi, 9  
Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131  
Astearte eta ostegunetan:  
10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/  
18-19:30/20-21:30  
*Mendaro*  
Astelehen eta asteazkenetan:  
10-11:30/15-16:30  
Astearte eta ostegunetan:  
20:00-21:30

## FISIOTERAPIA

### *Ainhoa Fisioterapia*

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.  
Tel.: 943 531 953  
669 565 745  
Goiz eta arratsalde .  
Jausoro, 6 behea

## OPTIKAK

### *Ikus optiko-optometrista*

San Bartolome, 10 - Tel: 943 743 734  
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00  
**Uzuri**

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)  
San Frantzisko, 21 - Tel: 943 740 359  
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

### *Itziar Sarasketa*

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62  
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## MASAJISTAK

### *Victoria Iraegi*

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.) San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) -Tel.: 943 740 770  
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

## HORTZ KLINIKAK

### *Irale*

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)  
Tel: 943 743 679  
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)  
Tel: 943 177 134  
*irale@irale.com*  
*www.irale.com*

## *Leku eder*

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza, 5 behea  
Tel: 943 530 053  
*lekueder@infomed.es*

## *Beltia Arriola*

- Odontologia orokorra eta ortodontzia  
- Haurren Hortzagin programa  
- Panoramikak eta telerradiografiak  
Trenbide kalea 21, behea  
Tel: 943 531 869

## PODOLOGOAK

### *Oinberri*

Errosario kalea, 25  
Tel: 943 741 795  
Astelehenetik ostiralera:  
9:00-13:30  
15:00-19:30

## *Iñigo Arrillaga Yudego*

- Hanken afekzioen terapia.  
- Neurriera egindako plantilak.  
- Hanka diabetikoen zainketa.  
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.  
San Frantzisko kalea, 20 behea  
Tel: 943 741 645  
Ordutegia:  
9:30-13:30  
15:30-19:30

